

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**43/2019 Foru Agindua, otsailaren 26koa, otsailaren 15eko 32/2019 Foru Aginduko hutsak zuzen—tzekoa, zeinaren bidez baimena eman zitzaion Martín Gartzandia Gartzandia Gasteizko udalbatzako idazkari nagusiari eginkizunak metatu eta udal horretako Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko titularrenak ere betetzeko**

Otsailaren 15eko 32/2019 Foru Aginduaren bidez, baimena eman zitzaion Martín Gartzandia Gartzandia jaunari, zeina Gasteizko Udaleko karrerako funtzionarioa baita eta egun udalbatzako idazkari nagusi lanpostua betetzen ari baita, behin-behineko izendapen baten bidez, eginkizunak metatu eta udal horretako Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko titularrenak ere betetzeko.

Horiek horrela, foru agindu horren xedapen zatiko bigarrean ezarri zen ezen arauak 2018ko urtarrilaren 16tik aurrera eragingo zituela ondorioak, harik eta lanpostu hori legez ezarritako prozeduraren arabera bete arte.

Huts material bat hauteman da xedapen zatiko bigarren horretan, data horretan Victoria Idoia Martínez Peñalba lanpostuaren aurreko titularra baitzegoen lanean; 2019ko urtarrilaren 15ean hartu zuen borondatezko baja erretiroagatik.

Ondorioz, otsailaren 15eko 32/2019 Foru Aginduak 2019ko urtarrilaren 16tik aurrera eragin behar ditu ondorioak, metatzeagatik xedatutako izendapenari dagokionez.

Hau xedatzen du Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 109. artikulua:

#### **109. artikulua. Egintzak errebokatzea eta okerrak zuzentzea**

1. Preskripzio-epena bete ez den bitartean, administrazio publikoek edozein unetan erreboka ditzakete beren egintzak, kargak ezartzen dituztenak edo inoren kalterako direnak, betiere errebokazio hori ez bada legeek onartzen ez duten lekopen edo salbuespena, eta ez bada berdintasun-printzipioaren, interes publikoaren edo ordenamendu juridikoaren aurkakoa.

2. Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Hartara, transkribatutako artikulua bigarren apartatuak xedatutakoa aplikatuz, otsailaren 15eko 32/2019 Foru Aginduaren xedapen zatiko bigarrean hautemandako hutsa zuzendu behar da, eta esan behar da aginduak 2019ko urtarrilaren 16tik aurrera eragingo dituela ondorioak.

Azaldutako guztirengatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea Martín Gartzandia Gartzandia Gasteizko udalbatzako idazkari nagusiari eginkizunak metatu eta udal horretako Gobernu Batzarrari Laguntzeko Organoko titularrenak ere betetzeko baimena eman zion otsailaren 15eko 32/2019 Foru Aginduaren xedapen zatiko bigarrena; honela idatzita geldituko da:

“Baimen honek eragina izango du 2019ko urtarrilaren 16tik, harik eta lanpostua legez ezarritako prozeduraren arabera bete arte”.

Bigarrena. Ebazpen hau Gasteizko Udalari eta interesdunari jakinaraztea, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 26a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta  
Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
IÑAKI GUILLERNA SAENZ